

Literatura Unibertsala bildumaren bigarren aroa

50 liburu berri argitaratzeko proiektua



Bohumil Hrabal-en *Zorrotz begiratutako trenak*, Isaac Bahevis Singer-en *Zortzi kontakizun*, Agota Kristof-en *Atzo* eta Yasar Kemal-en *Ararat mendiaren sumina* dira *Literatura Unibertsala* bildumako bigarren aroa estreinatu duten tituluak. Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteten Elkarteak (EIZIE) eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak zuzentzen duten egitasmoak 100. titulua, Shakespeare-ren *Hamlet*, argitaratu zuen joan den neguan eta, honenbestez, proiektuaren lehen zikloa burutu.

Lehen ehun tituluak argitaraturik ere, beste 50 titulu ere itzultzeko konpromisoa sinatu zuten bildumaren arduradunek. Argitaratzeari dagokionez, Ibaizabal argitaletxeak jarri zituen kalean lehen ehun tituluak eta, aldiz, Alberdania eta Elkarlanean etxeek koedizioan argitaratuko dituzte hurrengo 50 aleak.

Arestian aipaturiko lau tituluak dira lehen emaitza. Fernando Reyk itzuli ditu Bohumil Hrabal-en *Zorrotz begiratutako trenak* eta Yasar Kemal-en *Ararat mendiaren sumina*. Koro Navarro da Isaac Bashevis Singer-en *Zortzi kontakizun* lanaren itzultzaile eta Eskarne Mujika, berriz, Agota Kristof-en *Atzo* lanarena.

Zorrotz begiratutako trenak nobelak 1945. urtera jotzen du, III. Reicha erortzeko zorian dagoen garaira. Singer-en *Zortzi kontakizun* lanean, yiddish kulturaren berri ematen digu egileak New Yorkeko erbestetik. Kristof-ek, Europako sortaldetik mendebaldera alde egin duen Tobias Horvathi pertsonaiaren istorioa kontatzen du eta, Kemalek, azkenik, kurdutarren istorio mitikoa kontatzen du *Ararat mendiaren sumina* narrazioan.

Lau tituluok ez ezik, proiektuaren arduradunek jakinarazi dute zein izango diren bildumaren barruan kaleratuko diren hurrengo liburuak. Zerrendan ageri dira, esate baterako, Raymond Carver-en *What we talk about when we talk about love* (Koro Navarro itzultzaile), Antoine Saint Exupéry-ren *Pilote de guerre* (Josu Zabaletak itzuliko duena), Toni Morrison-en *Beloved* eta Leo Perutz-en *Zwischen neun und neun* (Antton Garikanoren eskutik biak ere), Jean Paul Sartre-ren *La nausée* (Monika Etxebarria itzultzaile), eta Emile Zola-ren *Le ventre de Paris* (Karlos Zabalak itzultzekoa).

Aurreikusi dutenez, aurten argitaratuko dituzte lan horietarik hiru.

1

Literatura Unibertsala bildumaren aro berria

2

PERTSONAJEA:

Rudolf de Rijk

LABURRAK

- Bilbo Zaharra euskaltegiko hitzaldiak web-ean

- Euskara Lleidako Udako

Unibertsitatean

- *Berria*, kalean

3

- Done Jakue bidea
- Dirulaguntza deialdia

4

EBPN prest

Elgoibarren

laburrak



Bilbo Zaharra euskaltegiako hitzaldiak web-ean

Bi urte ere badira Bilbo Zaharra euskaltegiak "Euskal kulturaren ajeak eta literatura" izeneko foroa antolatzen duena Euskaltzaindiaren laguntzaz. Egungo idazlerik ezagunenek izan dute hitza

bertan eta beraien hitzaldiak jaso dituzte euskaltegiaren web-gunean, www.bilbozaharra.com helbidean. Dagoeneko irakurgai dira bertan Bernardo Atxaga, Ramon Saizarbitoria, Koldo Izagirre, Anjel Lertxundi, Itxaro Borda eta Pedro Alberdiren hitzaldiak.



Euskara Lleidako Udako Unibertsitatean

Udako ikastaroak antolatu ditu Lleidako Unibertsitateak eta, horien barne, Pirineotako hizkuntzen idatzizko kodifikazioari buruz jardun dute Vielha-n, uztailaren 14tik 18ra. Bertan, aragoiera, katalana, okzitania eta euskararen kasuak aztertu dituzte. Hizkuntza gutxituak dira laurak ere, baina egoera linguistiko eta soziolinguistiko ezberdinak dituztenez konparazio aberasgarriak egiteko modua izan dute parte hartzaileek.



Berria, kalean

Ekainaren lehenaz gero kioskoetan da *Berria*, euskarazko eguneroko berria. *Eguna, Euskaldunon Egunkaria* eta *Egunero*-ren ondoren, kalean da *Berria*. Egunkari berriko zuzendari Martxo Otamendik kaze-

taren 1. zenbakiak idatzi zuenez "euskarazko komunikabide sendorik gabe ezinezkoa izango da Euskal Herriko komunikazio-esparrua eraikitzea, eta hori egin ezean zailagoa izango du etorkizuna gure herriak". Kazetak www.berria.info du Interneteko helbidea.

in memorian

Rudolf de Rijk

Hizkuntzalari holandarraren heriotzan



Ekainaren 15ean gaitzak jota hil zen Amsterdamen Rudolf de Rijk hizkuntzalari holandarra. Bertan jaio zen 1937an, eta Leyden-eko Unibertsitateko irakasle izan zen erretiratu zen arte. Rudolf de Rijk Euskal Filologia eta Hizkuntzalaritza bultzatu duten europar hizkuntzalarien tradizioaren jarraitzaile izan zen. Lehendik, beste bi holandar ziren euskalari atzeritarren zerrendan: Willen Van Eys (1825-1914) gramatikalaria, lexikografo eta filologoa eta C.C. Uhlenbeck (1866-1950), Leyden-eko Unibertsitateko irakaslea, de Rijk bera bezala.

De Rijk zena euskara ikasten hasi zen Hizkuntzalaritza ikasketen osagarri eta hitz hurrenkerari buruzko lan garrantzizkoa argitaratu zuen 1969an *Fontes Linguae Vasconum* aldizkari sortu berrian: "Is Basque a SOV Language?", oraindik ere aipatu ohi den artikulua baita.

Massachusetts Institute of Technology-n euskal perpaus erlatiboen azterketa generatiboa burutu zuen: *Studies in Basque Syntax: Relative Clauses* (1972), doktorego tesia izan zuena eta mugari euskal sintaxiari buruzko lanetan. Azken aldian, *A progressive Grammar of Standard Basque* gramatika lana egiten ari zen.

Euskaltzain ohorezko zen, UPV/EHUko *Doctor honoris causa* eta nazioarteko hizkuntzalarien artean itzal handieneko euskalaria. Dударik gabe, askoren gogoan iraungo du luzaro Rudolf de Rijk holandarraren lan, irudi eta bihotz handitasunak.



Done Jakue bidea

Euskararen aztarnak Santiago bidean ageri


Iraganbide izan da beti gure Herria. Historiaurrean bertan, Brontze Aroan –duela 2.500 urte–, Euskal Herritik igaro ziren zeltak, eta toki-izen zenbait ditugu frogatuta: Nerbioi, Deba eta Ultzama, adibidez. Erromatarrek ere heldu ziren euskal lurretara, eta sakon eragin zuten bertan. Hala ere, are gehiago Arabako eta Nafarroako lautadetan, mendialdean baino.

Konpostelarako bidean ziren erromesek ere iraganbide izan zuten Euskal Herria. X. mendean hasi eta XIX. mendera arte makina bat erromes heldu zen Europatik Konpostelara, gure herrian barrena. Santiago apostoluaren hilobia ikustea zuten helburu.

Ibiltarien artean, Aymeric Picaud frantsesak aparteko lekukotasuna utzi zigun 1140. urtean euskararen lurrak zeharkatu zituztenean. *Liber Sancti Jacobi* liburua ondu zuen Picaud-ek eta, bertan, euskarazko hizteirik lehenetarikoa osatu zuen. Urcia, Andre Maria, orgui, ardim, aragui, araign, echea, iaona, andrea, elicera, belaterra, gari eta iaona domne iacue dira haren hiztegian ageri diren hitz batzuk.

XVIII. mendean ere erromes kantak eta bidaia egiteko gidaliburu praktikoa osatu zuten Zuberoan: *Jundane Jakoberako Arruta eta Gida zuiñek erraiten baitu nontik nura jun behar den eta hiri bateti bestila zonbat lekua bide den.*

Done Jakue bidea, euskararen bidea ere izan baita Euskal Herrian.



Dirulaguntza deialdia

Entitate pribatuetan euskara planak garatzeko dirulaguntzak



Entitate pribatuetan euskara planak garatzeko 2003ko dirulaguntzak emateko modua arautzen duen agindua argitaratuko da laster.

Horretarako, guztira, 488.820,64 euroko zenbatekoa jarriko da.

Indarrean dagoen legeriaren arabera eraturiko eta dagokion erroldan inskribaturiko pertsona juridiko pribatuak izan daitezke agindu honetan ezarritako dirulaguntzen jasotzaile. Hauekin batera, zuzenbide publikoko korporazioak ere izan daitezke dirulaguntzen onuradun.

Dirulaguntza-gaiak honako hauek izango dira:

- 1.- Itzulpenak.
- 2.- Euskaraz lan egiteko euskarazko softwarea erostea edo egokitzea
- 3.- Langileen hizkuntza prestakuntza (alfabetatzea, euskalduntzea eta trebakuntza)
- 4.- Planaren kudeaketarako organoen lana.

Agindu honetan ezarritako dirulaguntzak lehiaketa bidez emango dira.

Informazio gehiago nahi izanez gero Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara jo. 945019523

EBPN prest Elgoibarren

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartu du Elgoibarko Udalak



Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartu zuen Elgoibarko Udalak joan den maiatzaren 20an izandako Osoko Bilkuran. Herritarrei plan horren xehetasunak azaltzeko, aurkezpen ekitaldia izan zen ekainaren 26an Elgoibarren. Bertan izan ziren, besteak beste, M^a Victoria Agirregomezkorta, Elgoibarko alkatea; Miren Arrate Arrieta, Euskara batzordeburua; Patxi Goenaga Hizkuntz Politikarako sailburuordea eta Lore Leanizbarrutia, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko zuzendari nagusia.

Duela urtebete udalerrian EBPN garatzeko konpromisoa hartu zuen Elgoibarko Udalak eta, azken urte honetan udala plan horixe prestatzen aritu da, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin elkarlanean.

Onartu den EBPNren helburu nagusia euskararen normalizazioa lortzea da, hau da, elgoibartarrek euskaraz bizitzeko dituzten aukerak handitzea eta, gizarteko arlo guztietan, euskararen berreskurapen osoa lortzeko neurriak hartzea.

Horri loturik, beste hiru helburu estrategiko izango dira kontuan EBPNren baitan: euskara belaunez belau eta etenik gabe transmititzea, euskararen erabilera sustatzea eta euskararen kalitatea areagotzea.

Plan horrek hiru urteko iraupena izango du (2003-2006), eta hiru atalek osatuko dute: Euskalgintzan berebiziko garrantzia duten esparruen diagnosi orokorra; datozen hiru urteotan, euskararen normalkuntza lortzeko helburuak, neurriak eta ekintzak jasotzen dituen plan estrategikoa; eta, azkenik, plan estrategikoa gestionatzeko urtez-urteko kudeaketa plana.

EBPN plan integrala da, gizarteko arlo gehienak kontuan hartzen dituena. Ez da dokumentu itxi eta aldaezina, irekia eta etengabe egokitzeko sortua baizik, herrigintzan eta gizartegintzan diharduten sektoreen eta taldeen ekarpenek aberastuko duten neurrian eguneratzen joango dena.

Plan hori egokitzeko sortu da Elgoibarko Euskararen Aholku Batzordea. Batzorde hori herrian euskararen normalizazioan eragiten duten esparruetan esanguratsuak diren 17 andre-gizonek osatzen dute. Aholku Batzorde-



ak lagundu egingo dio udalari EBPN egokitzeko, hau da, batzorde horrek aholkua emango dio udalari euskararen normalkuntzaren inguruko gaiak jorratzerako orduan. Horrez gain, urteroko kudeaketa planen jarraipena egiten ere lagunduko dio Aholku Batzordeak Udalari.

EBPN udalarena ez ezik gizarte osoarena ere izango da. Izan ere, plan hori garatzeko ezinbestekoak izango dira udal osoaren konpromisoa eta gizartearen partaidetza eta lankidetzak.

Plana Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikaren ildo nagusiak erabakitze-ko, foru-aldundiak eta udal bideratu ohi duten euskararen aldeko susta-pen-politika gidatzeko eta euskalgintzan diharduten elkarte, talde eta erakundeekin elkarlana bideratzeko oinarriko erreferentzia eta tresna izango da.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: l-sosoaga@ej-gv.es

Euskara

Gaztelania

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

kodea:Lurraldea:.....

Tel.:

e-posta: